

# GUREAK GURE

Ortzi: Non hago Euskal Herri)  
Ez ote haiz erdal ur  
etorkinetan gesaldu?

Euskal Herria: Hemen naiz, ito nahi  
naute baina  
bizi naiz.

Ortzi: Non zeuden "Mari"ren  
sei aginduak?

Euskal Herria: Beste hamar dira  
orain nagusi.

Eki: Baztertu al gaitun?  
Isildu al zituan  
Eate hotsak?

Euskal Herria: Bizi naiz,  
bizi nahi dut!

Aitor: Ahantzi al ditun  
euskal ele zahar  
bezain goxoak?


Euskal Herria: Ez, bizirik  
dira, badiraute.

Eki: Non zeuden hire mendietako  
lizar, gartzain, pago eta haritzak?  
Zer ditun zuhaitz beltz horiek?

Ortzi: Non zeuden "Aker"en  
akelarreak? Non sorginak?

Aitor: Ez da txalapartaren  
oihartzunik entzuten, ez eta  
adar deirik hautematen...

Euskal Herria: Oraindik barreiatzen  
da beren soinua  
euskal bazterretan...



Ortzi: Zer dion baserri zuriez?  
eta zer kai bazterrez?  
Non zebiltzan neska-mutil  
gazte sasoikoak, herriaren  
maitaleak?

Ortzi, Eki, Aitor: Bizi bedi Euskal Herria!  
Altza bitez euskal jendeak,  
Zahar eta gazte, gizon eta  
emakume!

Eraiki bezate Euskal Herri  
berri zaharra!  
Izan bitez bat euskeraren  
magal beroan!  
Halá izan bedi sekulako!!!

JOXE LUIX AGIRRETXE

